# SmartBrush: Funtsezko Jarduerak

SmartBrush-en arrakasta ez dago soilik bere produktu berritzailean, baizik eta enpresak egunerokoan egiten dituen funtsezko jardueretan. Jarduera horiek dira balio-proposamena bezeroei erakartzeko eta enpresaren diru-sarrerak sortzeko oinarria.
SmartBrush-en funtsezko jarduerak hiru multzotan banatzen dira: produkziozko jarduerak, arazo-konponketako jarduerak eta plataformako edo sareko jarduerak.

## 1. Produkziozko jarduerak

Hauek dira SmartBrush-en jarduera nagusi eta ezinbestekoak, enpresaren produktuaren funtzionamendua eta kalitatea bermatzen dutenak.

**• Produktuaren fabrikazioa eta muntaketa**

Bi oinarri adimendunen (garbitzekoa eta lehortzekoa) diseinua, ekoizpena eta montaketa enpresaren barne-prozesu nagusiak dira. SmartBrush-en ezaugarri bereziak (motor bibratzailea, aire bero lehorra, silikonazko oinarri zimurtua…) zehaztasunez fabrikatu behar dira.

**• Kalitate-kontrol zorrotza**

Brotxak ez kaltetzeko eta garbiketa-lehorketa automatikoa behar bezala funtziona dadin, probak, testak eta segurtasun-azterketak funtsezkoak dira.

**• Teknologia garatzea (I+D)**

Aire lehorreko lehortzea eta brotxaren zuntzak ez kaltetzeko sistema eraginkorrak garatzea da jarduera kritikoena. Ezagutza teknologiko hau enpresaren gaitasun propioa da.

## 2. Arazo-konponketako jarduerak

SmartBrush-ek bezeroen arazo zehatz bat konpontzen du: brotxak garbitzeko prozesua luzea, aspergarria eta ez oso higienikoa izatea.

**• Garbiketa eta lehortze-prozesua automatizatzea**

Hau da enpresaren gaitasun garrantzitsuena. Oinarri garbitzailearen bibrazioa, silikonazko zimurrak, ur-konpartimentua eta bigarren oinarriaren aireztapen-sistema dira konponbidearen oinarria.
Horregatik, sistema horren diseinua eta programazioa SmartBrush-en barne jarduera funtsezkoak dira, eta ez dira kanpoko enpresen esku uzten.

**• Bezeroaren esperientzia hobetzea**

Arazoak konpontzeko jardueren barnean sartzen dira:

- **Garbiketa denbora murriztea**

- **Higienea hobetzea**
- **Erabilera erraza eta intuitiboa egitea**
- **Produktuaren erabilera-esperientzia etengabe optimizatze**a

Funtzio horiek guztiak SmartBrush-en balio-proposamena osatzen dute.

### 3. Plataforma edo sareko jarduerak

SmartBrush-ek marketin eta bezero-sare indartsua behar du kosmetika- eta makillaje-sektorean kokatzeko.

**• Marketin digitala eta sare sozialak**

Sare sozialetako kanpainak, influencer eta beTeknologia garbiketa- eta lehortze-sistemen diseinua
Gaitasun teknologikoa funtsezko aktiboa da.

- Oinarri adimendunen mekanismo propioa (motorra, aireztapena, bibrazioak)
- Kalitate-kontrol maila altua
- Diseinu industriala eta ergonomikoa

Ikerketa eta berrikuntza (I+D)auty blogger-ekin egindako elkarlanak eta online presentzia dira marka indartzeko jarduera estrategikoak.

**• Salmenta-kanal digitalen kudeaketa**

Online dendak, aplikazioak eta makeup store fisikoekin egindako akordioak dira SmartBrush-en negozio ereduko jarduera garrantzitsuak. Jarduera hauek, beharrezkoa bada, kanporatu daitezke, ez direlako enpresaren muina.

**• Bezeroekin harremana eta iritzi jasotzea**

Merkatu-ikerketak, bezeroen iruzkinak jasotzea eta produktua etengabe hobetzea dira SmartBrush-ek eskaintzen duen zerbitzu adimentsuaren parte.

# Kanpoko enpresen esku utz daitezkeen eta ezin daitezkeen jarduerak

## Ezinbestekoak eta barnean mantendu beharreko jarduerak

- Hauek dira enpresaren "errezeta sekretuak". Horiek kanpoko enpresa bati ematea arrisku handia litzateke eta negozioaren funtsa galduko litzateke.

## Kanpoko enpresen esku utz daitezkeen jarduerak

- Publizitate eta marketin zerbitzu batzuk
- Garbiketa orokorra edo bulegoetako mantentze-lanak
- Banaketa logistikoaren zati bat (garraiolari enpresak)
- Catering edo ekitaldi antolakuntza
- Web diseinuaren zati bat (betiere marka-estrategia enpresan mantenduz)

Hau guztia enpresaren eraginkortasuna handitzeko eta baliabideak benetan garrantzitsuak diren jardueretan kontzentratzeko egiten da.